DONOSTIARREK KLIMA ALDAKETAREN INGURUAN DUTEN PERTZEPZIO SOZIALAREN INGURUKO IKERKETA

2025



cristinaenea

Ikerketaren koordinazioa
Leire Sarobe

Ikerketaren diseinua
Siadeco Ikerketa Aplikatua, Leire Sarobe eta Jose Mª Hernandez

Emaitzen analisia
Siadeco Ikerketa Aplikatua

Txostenaren idazlana
Siadeco Ikerketa Aplikatua
Jose Mª Hernandez

Argitaratze-data
2025ko azaroa

Argitatzailea
Donostiako Jasangarritasunaren eta Klimaren Behatokia
Cristina Enea Fundazioa
Mandasko dukearen pasealekua 66
20012 Donostia

observatoriodelasostenibilidadss@donostia.eus
cristinaenea@donostia.eus
www.cristinaenea.eus

AURKIBIDEA

Aurkezpena 4

Planteamendua eta alderdi metodologikoak 5

1. Pertzepzio eta emozio orokorrak 9
   1.1. Klima-aldaketarekiko bat-bateko lotura 10
   1.2. Klima-aldaketaren larritasuna 13
   1.3. Klima-aldaketarekin lotutako sentimenduak 16
   1.4. Klima-aldaketari emandako garrantzi sozial eta pertsonala 19
   1.5. Klima-aldaketari emandako garrantziaren ikuspegi integrala: biztanleriaren tipologia 22

2. Informazioa eta sozializazioa 25
   2.1. Klima-aldaketari buruzko informazioaren eskuragarritasuna 26
   2.2. Klima-aldaketa eguneroko komunikazioan 29

3. Eragileak, erantzukizunak eta jarduketen nahikotasuna 34
   3.1. Klima-aldaketaren eragileak 35
   3.2. Eragile sozialek klima-aldaketaren aurkako borrokan duten erantzukizuna 38
   3.3. Eragile sozialek klima-aldaketari aurre egiteko egiten dituzten jarduketen nahikotasuna 42
   3.4. Eragile sozialen rola neurtzea: adierazleak 45

4. Ondorioak eta eraginak 48
   4.1. Klima-aldaketaren ondorioak 49
   4.2. Klima-aldaketaren eraginak 53

5. Ekintza pertsonalak 59
   5.1. Klima-aldaketa jorratzeko ekintza pertsonalak 60
   5.2. Klima-aldaketa jorratzeko jarduketa pertsonalen nahikotasuna 64
   5.3. Klima-aldaketa jorratzeko behar beste ez egiteko oztopoak 67
   5.4. Jarduketa pertsonalaren eta gizarte-eragileen nahikotasuna, ikuspegi integraletik 70

6. Donostiako Udalak klima-larrialdiaren aurrean egiten duen jarduketaren gaineko pertzepzio soziala 72

Ondorioak 81

Apéndice I: Cuestionario 91
Apéndice II: Distribución de la muestra según variables de caracterización 98

AURKEZPENA

Klima-aldaketaren gaineko pertzepzioaz hitz egitean, beharrezkoa da kontzeptua bere zentzu zabalean ulertzea. Izan ere, klima-aldaketaren fenomenoaren gaineko pertzepzio orokorraren barruan (klima-aldaketaren ukatzaileen ehuneko txikia kenduta), erantzuteko hainbat modu ditu gizarteak eta modu askotara adierazten ditu kontu espezifikoagoen kasuan. Ondorioz, termino sozialetan, hainbat pertsona-kategoria sortzen dira modu naturalean fenomenoaren, haren kausen eta ondorioen aurrean. Beraz, esan dezakegu anbibalentzia soziala dagoela.

Klima-aldaketaren alderdiei buruzko informazioa aspalditik dago eztabaida sozialaren barruan, baina beti ez du ez intentsitate ez interes berbera sortzen, eta horrek eragin handia du pertzepzioan edo pertzepzio sozialetan . Duela 10 urteko Parisko hitzarmenak erreferentziatzat hartuz gero, esan dezakegu mugarri izan zirela agenda klimatiko globala sustatzeko eta tenperaturek gora egitea mugatzeko neurriak hartzeko egungo lasterketari ekiteko garaian. Hala ere, maila globalean edo tokikoan izandako ondorengo koiunturek eragin dute gizarteak gai horren gainean duen interesa murriztea eta, hortaz, baita gaiaren gainean duen pertzepzioa ere. Krisi ekonomikoak, osasun-pandemia, gatazka armatu eta humanitarioak edo egoera geopolitikoaren berrantolamendua izan dira klimaren gaia komunikazio-agendatik kanpo utzi duten gaietako batzuk.

Hala ere, gure ikuspegitik funtsezkoa da gizarteak fenomeno klimatikoaren gainean duen pertzepzioa eta pertzepzio horretan sortzen diren aldeak kalibratzea eta neurtzea; erabakigarria baita etorkizuneko erronkak, politika publikoak komunikatzeko modua eta helburu klimatikoen gaineko onespen soziala jorratzeko. Hori dela eta, donostiarrek klima-aldaketaren gainean duten pertzepzio sozialean sakonduko du azterketa honek eta gai hauen gainean dituzten ideiei buruzko ezagutza eguneratua jasotzea izango du xede: klima-aldaketaren larritasuna; biztanleriarengan sortzen dituen emozioak; fenomenoari buruzko informazioaren sozializazioa eta fidagarritasun-maila; kausak eta eragileen erantzukizun-maila; ondorioak eta ondorioen denbora-eremuak eta eremu geografikoak; eta, azkenik, biztanleriak erronka horri aurre egiteko egingo dituen ekintza pertsonalak eta horien egokitasuna eta nahikotasuna. Azkenik, atal bat gehitu dugu herritarrek tokiko erakunde publikoen eta klima-aldaketaren aurkako neurrien gainean duten konfiantza-maila zein den jakiteko.

PLANTEAMENDUA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK

Herritarrek jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren gainean duten pertzepzioari buruz Cristina Enea Fundazioak egindako azterketekin jarraitzea eta ikerketa-ildo horri jarraipena ematea da ikerketa honen helburua. Aurrekoen kasuan bezala, azterketa honen xedea da 18 urtetik gorako donostiarrek klima-aldaketaren gainean dituzten pertzepzioak aztertzea, biztanleriaren unibertso horren lagin adierazgarri bati egindako galdeketa-prozesuaren bitartez.

Helburu hori garatzeko eta gauzatzeko, Donostiako ezaugarri eta berezitasun idiosinkrasiko propioak aintzat hartu diren arren, gaiarekin lotutako beste azterketa batzuei buruzko informazioa hartu da batez ere kontuan. Informazio horri esker, loturak ezarri ahal izan dira besteak beste hirian gai honi buruz egindako aurreko proiektuekin (2012an eta 2018an) eta beste lurralde-eremu batzuetako proiektuekin kontrastatu eta alderatu ahal izan da (Gipuzkoa, Estatua, Europa eta abar). Zehazki hauekin:

- Donostiako herritarrek klima-aldaketaren gainean zuten pertzepzioari buruz Cristina Enea Fundazioak 2012an eta 2018an[1] egindako azterketa.
- Eusko Jaurlaritzako Presidentetzaren Azterketa Soziologikoaren Kabineteak IHOBErekin eta EEErekin batera klima-aldaketari eta trantsizioari buruz egindako azterketak, 2017an, 2021ean eta 2024an.
- Special Eurobarometer 538 Climate Change - Report. 2023[2]

Hauek dira azterketa honen edukiaren-gaiaren eta analisiaren ardatz nagusiak:

a) Donostiarrek klima-aldaketaren gainean dituzten PERTZEPZIO ETA EMOZIO OROKORRAK: zerekin LOTZEN DUTEN MODU ESPONTANEOAN, zer LARRITASUN maila duen, zer SENTIMENDUREKIN lotzen duten (interesa, kezka, inpotentzia, beldurra, haserrea, axolagabekeria...), zer GARRANTZI PERTSONAL ETA SOZIAL ematen dioten (duena baino gehiago, duena, duena baino gutxiago), eta abar.

b) Klima-aldaketarekin lotutako hainbat gairen gainean dagoen INFORMAZIO maila (kausak, ondorioak, haren aurka egiteko neurriak, egokitzeko neurriak) eta klima-aldaketak egunerokoan duen SOZIALIZAZIO pertsonala (gai horri buruzko elkarrizketak etxean, lagunekin, ikastetxean, lanean).

c) Klima-aldaketaren ERAGILEAK (prozesu naturalen eta/edo giza jardueraren ondorioz batik bat). ERAGILE SOZIALEK (administrazio publikoak, udala, enpresak eta industriak, herritarrak, elkarteak, GKEak, etab.) klima-aldaketaren aurkako borrokan dituzten ERANTZUKIZUNAK eta arlo horretan egiten duten JARDUERAREN NAHIKOTASUN maila (beharrezkoa baino gutxiago egiten dute, beharrezkoa egiten dute edo gehiegi egiten dute).

1. Azterketa horretako datu guztiak bi hamarrenekin daude adierazita eta hala adierazi ditugu azterketa honetan ere.
2. Azterketa horretako datu guztiak hamarrenik gabe daude adierazita eta hala adierazi ditugu azterketa honetan ere.

d) Klima-aldaketaren ONDORIOZ Donostian EGOERA ARAZOTSUAK sortzeko probabilitatea, halaber: muturreko olatuak, itsasoko maila igotzea, bero-bolada ohikoagoak, uholdeen maiztasuna handitzea, animalien eta landareen espezie batzuk galtzea, plagak eta gaixotasunak ugaritzea, elikagaien eta uraren eskasia, ondasunen prezioak igotzea eta jendea etortzea klima-aldaketak kaltetutako lekuetatik. Eta klima-aldaketak hainbat kolektibotan duen ERAGIN maila (egungo belaunaldietan, etorkizunekoetan, herrialde aberatsetan, herrialde pobreetan eta donostiarrengan).

e) Donostiako herritarrek klima-aldaketari aurre egiteko egiten dituzten EKINTZA PERTSONALAK energiaren, garraioaren, kontsumoaren eta hondakinen arloan eta etorkizunean arlo horietan egingo lituzketen ekintza motak. Horrekin batera, klima-aldaketa jorratzeko egiten diren ekintza pertsonalen NAHIKOTASUN mailaren autokontsiderazioa ere aztertu da (egin beharko nukeena egiten dut?, gutxiago egiten dut?, gehiegi egiten dut?) eta hiru profil definitu dira. Eta beharrezkoa egiten ez dutela uste duten pertsonen kasuan, horretarako dituzten ERAGOZPEN edo OZTOPO nagusiak aztertuko dira (erosotasuna edo denbora falta, kostu ekonomikoa, ezagutza falta, eszeptizismoa, animo falta, axolagabekeria...).

f) Donostiako Udalak klima-aldaketa jorratzeko egiten dituen EKINTZEN gaineko adostasun-maila efizientzia energetikoaren arloan (autokontsumo energetikorako instalazioak sustatzea, etxebizitzen birgaitzeak bultzatzea, energiari buruzko informazioa ematea etxeetan), mugikortasunaren arloan (garraio publikoa hobetzea, ibilgailu kutsagarriak erdigunera sar daitezen debekatzea), hirigintzaren arloan (bidegorriak sortzea, oinezkoentzako eremuak sortzea, berdeguneak eta parkeak berreskuratzea eta sortzea, familia bakarreko eta bi familiako etxebizitzen eraikuntzak mugatzea) eta fiskalitatearen arloan (jarrera jasangarriak dituzten pertsonei zergak murriztea).

Bestalde, proiektu honen egitura metodologikoa eta oinarri informatibo nagusia inkesta-prozesu batekin dago lotuta zuzenean. Azterketaren xede den biztanleriaren unibertsoaren lagin adierazgarri batekin egin da inkesta-prozesu hori. Jarraian azalduko da fitxa teknikoa:

- **Diseinua, inkesta eta estatistikaren ustiapena:** Siadeco Ikerketa Aplikatuak bermatzen du lortutako informazio zuzenaren baliozkotasun- eta fidagarritasun-maila, diseinu metodologikoaren ezaugarrien arabera betiere..

- **Unibertsoa:** Azterketaren xede-unibertsoa 18 urtetik gorako Donostiako biztanleria da: 162.295 pertsona: 86.631 emakume eta 75.664 gizon.

- **Técnica:** Egituratutako galdetegi baten bitartez egindako telefono bidezko elkarrizketa pertsonala azterketaren xede-unibertsoaren lagin adierazgarri bati.

- **Galdetegia:** Erdi-egituratua eta aurretik kodifikatua, galdera itxiekin, erdi-itxiekin eta irekiekin. Hainbat bloke tematikoz dago osatuta eta lotura zuzena dute bloke horiek planteatutako proiektuaren edukiarekin (I. eranskina).

- **Laginaren diseinua:** Telefono finkoen azterketa egiteko oinarria lortzeko, hainbat etapatako ausazko-probabilitatezko laginketa egin zen: lehen etapan etxebizitzak aukeratu ziren eta bigarren etapan inkestatu beharreko pertsonak aukeratu ziren, sexuaren eta adin-tartearen araberako kuota-sistema aplikatuz. Telefono mugikorren azterketa egiteko oinarri lortzeko, berriz, ausazko-probabilitatezko laginketa egin zen eta sexuaren eta adinaren araberako kuotak zuzentzeko sistema ere aplikatu zen..

- **Laginaren tamaina eta errore-marjina estatistikoa:** Laginean 400 pertsona daude guztira. % 95eko konfiantza-tarterako datuen errore-marjina estatistiko globala ± % 4,89koa da p=q=0,5 denean, ausazko laginketa soila egin dela aintzat hartuta.

- **Landa-lana:** Elkarrizketak 2025eko urtarrilaren 27aren eta otsailaren 14aren artean egin ziren. Elkarrizketen % 48,5 telefono finkoaren bidez egin ziren eta % 51,5 telefono mugikorraren bitartez.

- **Hizkuntza:** Elkarrizketen % 64,5 gaztelaniaz egin ziren, % 32,3 euskaraz eta % 3,3 bi hizkuntzetan.

- **Elkarrizketen batez besteko denbora:** Elkarrizketen batez besteko denbora 15 minutukoa izan zen.

- **Informazio zuzena baliozkotzea:** Inkesten prozesuan bildutako informazioa euskarri informatikoan gorde zen (datuen oinarria sortuz). Eta aldagai barruko eta aldagai arteko koherentzia-arauekin (edits) kontrolatu, garbitu eta balidatu zen.

- **Ustiapen estatistikoa:** Estatistika deskriptiboan oinarritzen da azterketa (maiztasun absolutuak, erlatiboak eta aldagaien arteko gurutzaketa esanguratsuak). SPSS pakete estatistikoa erabili zen horretarako.

- **Laginaren ezaugarriak:** Inkestatze-prozesuan lortutako laginaren ezaugarri soziodemografiko nagusiak II. Eranskinean daude jasota. Taula honetan ageri dira maiztasun absolutuak (pertsonen-inkesten kopurua aldagaiak neurtzeko modalitateen arabera) eta maiztasun erlatiboak (maiztasun absolutu horiek laginaren tamainari dagokionez dituzten ehunekoak).

Azkenik, aldagai tematikoen gurutzaketa-taulak gehitu dira dokumentu honetan, ezaugarri sozialen aldagaiekin batera:

Sexua	Adina	Amaitutako ikasketen maila	Klase soziala	Ezkerra-eskuina ardatza	Abertzale-espainol ardatza
Gizona-Emakumea	Adinaren aldagaia lau taldetan zatitu dugu: **18tik 29 urtera, 30etik 45 urtera, 46etik 64 urtera** eta **65 urtetik gora.**	Amaitutako ikasketen maila hiru kategoriatan sailkatu dugu: **lehen mailako ikasketak, bigarren mailako** eta **lanbide-heziketako ikasketak, eta goi mailako ikasket.**	Klase soziala honela sailkatu dugu: **altua** (ertain-altua barne), **erdikoa** eta **baxua** (ertain-baxua barne).	"Ezkerra-eskuina ardatza" 1etik 10erako eskalan neurtzen da: 1 ezker muturra da eta 10 eskuin muturra. Hortik aurrera, hiru modalitate edo kategoria erabiltzen dira: **Ezkerra** (1-3), **tarteko posizioa edo zentrokoa** (4-6) eta **eskuina** (7-10).	"Euskalduna-espainola ardatza" ere 1etik 10erako eskalan neurtzen da: 1 batere nazionalista ez da eta 10 oso nazionalista. Hortik aurrera hiru modalitate edo kategoria erabiltzen dira: **Batere nazionalista ez** (1-3), **tarteko posizioa** (4-6) eta **oso nazionalista** (7-10).

Datuak interpretatzea errazteko, aldagaien gurutzaketa-tauletan ilunduta ageri dira batezbesteko orokorra gainditzen duten ehunekoak.

1

PERTZEPZIO ETA EMOZIO OROKORRAK

1.1. Klima-aldaketarekiko bat-bateko lotura

Azterketan parte hartu duten herritarrei klima-aldaketa entzundakoan buru datorkien lehen gauza esan dezaten eskatzean, ikusi dugu donostiarrek klima-aldaketarekin egiten dituzten bat-bateko loturak puntu hauekin daudela lotuta ikuspegi kualitatibo batetik:


- Ondorioak: hondamendi naturalak, berotze globala, tenperaturen igoera, lehortea, urtzaroa, itsasoko mailaren igoera, uholdeak.
- Kausak (kutsadura, zaborrak...).
- Egungo eta etorkizuneko arazoaren balorazioa (hondamendia, gizateriarentzako mehatxua, espezieen eta lurraren suntsiketa, seme-alabentzako etorkizuneko arazoa). Eta arazoa erlatibizatzea (klima-aldaketa beti egon da, fenomeno geologikoa da, puzten ari dira) edota ukatzea (ez du horretan sinesten).
- Arlo hori kudeatzeko eta jarduteko beharra: legeak ez betetzea, politikariek ez dute ezer egiten, konpondu beharreko arazoa da, oso atzeratuta goaz, zientziari kasu egitea.

Bat-bateko adierazpen horiek guztiak aintzat hartuta eta gaika sailkatzeko ariketa eginez, ikuspegi kuantitatibotik ondorioztatu dugu biztanleriaren % 80 baino gehiago 10 puntutan zentratzen dela. Eta ia erdia hiru puntutan (01. grafikoa). Hortaz:

- % 25,3k adierazi du klima-aldaketaz hitz egitean burura datorkion lehen gauza hau dela: errealitatea dela, arriskutsua dela, kezkagarria dela eta etorkizunerako ondorio larriak dituen arazoa dela.
- % 13k eguraldiaren aldaketarekin, muturreko tenperaturarekin, eguraldi eroarekin eta urtarorik ez izatearekin lotzen du klima-aldaketa.
- % 10,3k kutsadurarekin lotzen du zuzenean klima-aldaketa (ibilgailuek eragindako kutsadura, itsasoko kutsadura, airearen kutsadura...).

01 Grafikoa

Esadazu, mesedez, zer den klima-aldaketari buruz hitz egiterakoan burura datorkizun lehenengo gauza (%)



Hirian egindako galdera horretatik ateratako emaitzak Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabineteak 2017an, 2021ean eta 2024an egindako klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko azterketen[3] emaitzekin alderatuz gero, oro har nabarmenduko genuke arazoaren larritasun globala indar handiagoarekin bizi dutela hirian eta erlatibizazio eta ukapen txikiagoa dagoela arazo horren aurrean. Horrez gain, adierazgarria da erantzunen kopuru handiagoa bildu dela, Donostiako lagineko pertsonen % 2,5 baino ez baita geratu erantzun gabe.

Nolanahi ere, azterketen arteko ikuspegi konparatibo zorrotzagoa ageri da 01. taulan.

3. Bi azterketen kasuan telefono bidezko elkarrizketa indibidualaren bitartez jaso da informazioa, galdetegi egituratu batean oinarrituta, eta EAEko 18 urtetik gorako herritarrak izan dira lagin adierazgarriaren parte. 2017an 1.000 elkarrizketa egin ziren guztira: 250 Araban, 425 Bizkaian eta 325 Gipuzkoan. 2021ean, 1.905 elkarrizketa egin ziren EAE osoan. 496 Araban, 768 Bizkaian eta 641 Gipuzkoan. 2024an, 1.845 elkarrizketa egin ziren EAE osoan. 436 Araban, 768 Bizkaian eta 641 Gipuzkoan. Hiru kasuetan, datuak lurralde bakoitzeko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu ziren.

01 Taula

Esadazu, mesedez, zer den klima-aldaketari buruz hitz egiterakoan burura datorkizun lehenengo gauza (%)

	Donostia 2025	Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabineteak	Gipuzkoa 2024	Gipuzkoa 2021	EAE 2024	EAE 2021	EAE 2017
Errealitatea, arriskua, hondamendia, kezka, beldurra, gertaera, etorkizun txarra…	25,3	Benetako arazoa, larria eta premiazkoa, dagoeneko pairatzen ari gara, beldurra, ezinaren kezka (*)	19	11	21	13	10
Eguraldi aldaketa, muturreko tenperaturak, eguraldi eroa, ez dago urtarorik	13,0	Eguraldia aldatzen ari da, iragarrezinagoa da, muturrekoagoa	12	9	11	8	13
Kutsadura (ibilgailuak, itsasoa, airea...)	10,3	Kutsadura, CO_2 igorpenak	6	5	7	10	10
Hondamendia, gizateriarentzako mehatxua, espezieen eta lurraren suntsiketa	7,3	Planetarako mehatxua, suntsipena, kaosa, ingurumen-hondamendia	6	4	7	13	9
Lurraren beroketa	7,0	Berotze globala	2	4	2	3	6
Bero gehiago, tenperatura igoera, lehorketak	6,8	Eguraldi beroagoa, bero-bolada gehiago, lehortea	7	6	9	6	9
Arazoaren erlatibizazioa: klima-aldaketa beti egon da, geologia-fenomeno bat, gehiegikeria bat. Eta ez du horretan sinesten, gezurra da	4,8	Ez da hain larria, ez du horretan sinesten, negozio bat da	6	3	5	2	2
Planeta apurtzen ari gara, gu gara errodun	4,5	Pertsonek sortutako arazoa, giza jardueraren ondorioz, gure erantzukizuna, erruduntasuna	9	4	6	6	4
Hondamendi naturalak (DANA)	4,3	Hondamendi naturalak, naturaren gaineko ondorioak	5	1	4	3	8
Izotza urtzea, itsas mailaren igoera	2,8	Izotz-geruzak urtzen dira, itsas maila igotzen da	1	3	2	4	4
UnKonpondu beharreko arazo bat, atzerapen handia daramagu, zientziari kasu egitea	2,3	Jarduteko beharra, larrialdia, jarduteko premia, bizimodua aldatzea, energia berriztagarriak erabiltzea	2	1	2	3	4
Uholdeak, “el Niño”, ekaitzak	1,5	Eguraldia hezeagoa da, euriteak, uholdeak	4	2	4	1	2
Etorkizuna, nire seme-alabentzako arazoa	0,8	Etorkizuneko belaunaldiekiko kezka	2	1	2	2	5
Zaborra, birziklapena	0,8	Zaborra, birziklapena, zabortegiak	2	1	2	3	1
Legeak ez betetzea, politikariek ez dute ezer egiten hori konpontzeko	1,3	Politikarien errua, kudeaketa politiko txarra	2	1	1	1	-
Besterik	5,3	Besterik	2	1	2	1	3
ED/EE	2,5	ED/EE	16	43	13	20	10
Guztira	100,0	Guztira	100	100	100	100	100

Iturria: Geuk egina, azterketa honetako datuetatik eta Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabineteak 2024an, 2021ean eta 2017an egindako azterketen datuetatik abiatuta.

Oharra: Kodifikazioa egin da gerora inkestatuek bat-batean emandako erantzunekin.

(*) Azterketa Soziologikoaren Kabineteak egindako azterketetako Gipuzkoako eta EAEko datuen kategoria honetan gehitutako aipamen batzuk hainbat kategoriatan sailkatu ziren 2024 aurreko azterketetan. Hortaz, 2017an “belduRraren” aipamenak “planetarentzako mehatxua” kategorian sartu ziren eta “kezkaren” aipamenak “etorkizuneko belaunaldiekiko kezka” kategorian. 2021ean, “inpotentziari” egindako aipamenak “pertsonek sortutako arazoa” kategorian sartu ziren.


1.2. Klima-aldaketaren larritasuna

Klima-aldaketaren larritasunaren gaineko pertzepzioa 1etik 10era bitarteko puntuazio-eskalan neurtu da. 1ek arazoa ez dela batere larria esan nahi du eta 10ek arazoa oso larria dela. Hortik aurrera, batezbesteko puntuazioa eta hiru modalitate edo kategoria erabiltzen dira: larritasun txikia (1-4), larritasun ertaina (5-6) eta larritasun handia (7-10):

- 18 urtetik gorako donostiarren[4] % 84,4k uste du klima-aldaketaren arazoa arazo oso larria dela egun (02. grafikoa). Proportzio horrek 2024an Gipuzkoan eta EAEn erregistratutakoa gainditzen du (% 78).
- % 12,3k uste du larritasun ertaineko arazoa dela, Gipuzkoako (% 15) eta EAEko (% 14) biztanleriak baino gutxiagok.
- Soilik % 2k adierazi du klima-aldaketaren arazoa larritasun baxukoa dela. Gipuzkoan (% 6) eta EAEn (% 7) erregistratutako ehunekoaren azpitik dago hori.

Datu horiek erakusten dute egun[5] klima-aldaketaren larritasunaren gainean dagoen pertzepzioa handiagoa dela Donostian, Gipuzkoan eta EAEn baino.

02 Grafikoa
Orokorrean, gaur egun klima-aldaketaren arazoa zein neurritan da larria, zure ustez? (%)



4. Azterketa honetan Donostiako biztanleria aipatzen dugun bakoitzean, 18 urtetik gorako herritarrei egiten diegu erreferentzia, haiek izan baitira inkesta honen xedea.
5. Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabinetearen datuak 2024ko irailekoak dira.

02. taulan adierazten den moduan, klima-aldaketaren ondorioak objektiboki nabarmenagoak bihurtu diren arren azken urteetan, klima-aldaketaren larritasunaren balorazioaren gaineko batez besteko puntuazioak behera egin du 2021etik 2024ra, bai EAEn, bai Gipuzkoan. Hala, EAEn 8,1etik 7,5era jaitsi da eta Gipuzkoan 8,1etik 7,6ra. Bi kasuetan Donostiako batezbestekoaren azpitik (7,96) geratu da puntuazioa.

2021etik 2024ra, gora egin du klima-aldaketa larritasun ertaineko arazoa dela uste duten herritarren ehunekoak, bai Gipuzkoan, bai EAEn (5 puntu gora EAEn eta 4 puntu Gipuzkoan), bai eta larritasun txikiko arazoa dela uste dutenen ehunekoak ere (5 puntu gora EAEn eta Gipuzkoan). Aldiz, behera egin du larritasun handiko arazoa dela uste dutenen ehunekoak (10 puntu behera EAEn eta 8 puntu Gipuzkoan).

02 Taula

Orokorrean, gaur egun klima-aldaketaren arazoa zein neurritan da larria, zure ustez? (mesedez, erabili ezazu 1etik 10erako eskala bat: 1ek esan nahi du ez dela batere arazo larria, eta 10ek oso arazo larria dela) (%)

	Donostia 2025	Gipuzkoa 2024	Gipuzkoa 2021	EAE 2024	EAE 2021
Txikia	2,0	6	1	7	2
Ertaina	12,3	15	11	14	9
Handia	84,4	78	86	78	88
ED/EE	1,3	1	1	1	1
Guztira	100,0	100	100	100	100
Batezbestekoa (1-10)	7,96	7,6	8,1	7,5	8,1

Iturria: geuk egina, azterketa honetako datuetatik eta Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabineteak 2024an eta 2021ean egindako azterketen datuetatik abiatuta.

Jarraian, klima-aldaketaren larritasunaren pertzepzioaren gaineko emaitzen eta inkestan parte hartu duten pertsonen aldagai sozialen arteko gurutzaketa ageri da (03. taula). Ariketa horren adierazgarritasuna ez da nahikoa estatistikotzat hartzeko, baina joera interesgarri batzuk antzemateko aukera ematen du. Jarraian, datu garrantzitsu batzuk nabarmenduko ditugu:

- Inkestatuen artean, emakumeen % 87,2k eta gizonen % 81,72k uste dute larritasun handiko arazoa dela.
- Bigarren Mailako ikasketak eta Goi Mailakoak dituzten elkarrizketatuek larritasun handiagoa hautematen dute (% 84,1 eta % 88,2, hurrenez hurren) Lehen Mailako ikasketak dituztenek baino (% 73,5).
- Ideologikoki ezkerrean kokatzen diren pertsonen % 94,9k uste du larritasun handiko arazoa dela eta eskuineko ideologia dutenen kasuan % 77,8k.

03 Taula

Klima-aldaketaren larritasuna, sexuaren, adinaren, amaitutako ikasketen mailaren, klase sozialaren, ezkerra-eskuina ardatzaren eta abertzale-espainol ardatzaren arabera (%)

Klima-aldaketaren larritasuna	Sexua		Adina				Amaitutako ikasketen maila			Klase soziala			Ezkerra-eskuina ardatza			Abertzale-espainol ardatza			GUZTIRA
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	18-29 urteak	30-45 urteak	46-64 urteak	≥ 65 urteak	LH	DBH + Lanb. Hezik.	Goi mailakoak	Baxua	Ertaina	Altua	Ezkerzalea	Erdizalea	Eskubizalea	Ez abertzalea	Erdiko maila	Oso abertzalea	
Txikia	3,6	0,5	2,0	4,3	1,5	0,8	1,5	2,4	2,0	3,9	0,9	2,8	0,0	1,9	5,6	3,3	3,4	1,2	2,0
Ertaina	13,7	10,8	10,2	8,7	12,5	15,4	20,6	13,5	8,9	14,6	10,7	9,9	8,1	13,8	16,7	10,0	11,8	11,0	12,3
Handia	81,7	87,2	85,7	85,9	85,3	82,1	73,5	84,1	88,2	80,6	87,0	87,3	91,9	82,5	77,8	86,7	83,2	86,6	84,5
ED/EE	1,0	1,5	2,0	1,1	0,7	1,6	4,4	0,0	1,0	1,0	1,4	0,0	0,0	1,9	0,0	0,0	1,7	1,2	1,3
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
Batezbestekoa (1-10)	7,74	8,17	8,02	7,98	7,93	7,95	7,75	7,85	8,09	7,87	8,00	8,03	8,38	7,78	7,33	8,07	7,72	8,10	7,96

Azkenik, Europa osora begiratuz (2023[6]), klima-aldaketa arazo larria dela uste duten pertsonen proportzioa % 77koa da (15 urtetik gorako herritarrei dagokienez kasu honetan). Eta estatuan % 86ra iristen da proportzio hori. Hala, bosgarren postuan dago Europar Batasuneko (EB 27) herrialdeen rankingean.

Txosten honetako datuei dagokienez, Donostian % 84,5k uste du klima-aldaketa arazo larria dela. Zortzigarren postuan egongo litzateke, Maltaren (% 93), Greziaren (% 90), Portugalen (% 89), Hungariaren (% 87), Espainiaren (% 86), Frantziaren (% 85) eta Zipreren (% 85) atzetik.

6. Europa, Special Eurobarometer 538, 2023ko maiatza-ekaina (Lagina: >=15 urte). Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoaren Kabinetea-Presidentetza 2024 (EAEko eta Gipuzkoako datuak).

1.3. Klima-aldaketarekin lotutako sentimenduak

Galdera honen emaitzek iradokitzen dute donostiarrek ez dutela jarrera axolagaberik klima-aldaketarekiko. Kontrara, interes handia dute gai horretan. Ezintasunaren, haserrearen eta beldurraren gainetik dago haien kezka-maila (04. taula eta 03. grafikoa). Hortaz:

- % 91,8k adierazi du axolagabekeria gutxi (% 10,8) sentitzen duela edo batere ez (% 81) duela sentitzen klima-aldaketari dagokionez.
- % 86,6k interes handia (% 40,8) edo nahikoa (% 45,8) sentitzen du.
- % 83,8k kezka handia (% 39,3) edo nahikoa (% 44,5) sentitzen du.
- % 73,3k ezintasun handia (% 38,8) edo nahikoa (% 34,5) sentitzen du.
- % 71,3k haserre handia (% 33) edo nahikoa (% 38,3) sentitzen du.
- % 51,8k adierazi du beldur handia (% 17,5) edo nahikoa (% 34,3) sentitzen duela klima-aldaketaren gainean pentsatzean.


04 Taula

Klima-aldaketa burura etortzen zaizunean, ondorengo emozioak zein neurritan sentitzen dituzu? (%)

	Interesa	Kezka	Ezintasuna	Beldurra	Haserrea	Axolagabekeria
Asko	40,8	39,3	38,8	17,5	33,0	2,8
Nahiko	45,8	44,5	34,5	34,3	38,3	4,5
Gutxi	12,0	11,0	18,0	29,3	16,8	10,8
Ezer ez	1,3	5,3	8,3	19,0	11,0	81,0
ED/EE	0,3	0,0	0,5	0.0	1,0	1,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

03 Grafikoa

Klima-aldaketa burura etortzen zaizunean, ondorengo emozioak (asko nahiko)zein neurritan sentitzen dituzu? (%)



Ikuspegi ebolutiboa izateko, azterketa honetako interesari, kezkari eta beldurrari buruzko datuak eta 2018an egindako "Donostiako herritarrek klima-aldaketaren gainean duten pertzepzio sozialaren azterketa"[7] laneko datuak alderatu ditzakegu. Alderaketa horretatik ondoriozta dezakegu hiru sentimendu horien intentsitate-maila asko handitu dela. Proportzionalki hazkunderik handiena izan duen sentimendua kezka izan da; gero, beldurra eta, azkenik, interesa (05. taula). Hortaz:

· 2018an, Donostiako herritarren % 78,25ek interes handia edo nahikoa sentitzen zuen klima-aldaketarekiko; % 68,52k kezka handia edo nahikoa zuen; eta % 39,36k beldur handia edo nahikoa.

· 2025ean, % 86,6k sentitzen du interes handi edo nahikoa (2018an baino 8,3 puntu gehiago), % 83,8k kezka handi edo nahikoa (15,3 puntu gehiago) eta erdiak baino gehiagok (% 51,8) beldur handia edo nahikoa (12,4 puntu).

7. Patxi Olasagastik Cristina Enea Fundazioarentzat egindako azterketa hori aurrez aurre eta galdetegi batetik abiatuta egindako inkesta pertsonalen bitartez egin zen eta 18 urtetik gorako 378 donostiarrek osatu zuten lagina.

05 Taula

Interes-, kezka- eta beldur-sentimenduen intentsitatearen bilakaera klima-aldaketan pentsatzean (%)

	Interesa		Kezka		Beldurra	
	2025	2018	2025	2018	2025	2018
Asko	40,8	29,44	39,3	24,34	17,5	10,11
Nahiko	45,8	48,81	44,5	44,18	34,3	29,52
Gutxi	12,0	17,51	11,0	23,54	29,3	38,56
Ezer ez	1,3	4,24	5,3	7,94	19,0	21,81
ED/EE	0,3	-	-	-	-	-
Guztira	100	100	100	100	100	100

Bestalde, klima-aldaketak larritasun handia duela uste duten pertsonek hein handiagoan sentitzen dute interesa, kezka, ezinegona, beldurra eta haserrea, larritasun ertaina edo baxuagoa duela uste dutenekin alderatuta; eta hein txikiagoan axolagabekeria (06. taula).

Halaber, esan daiteke klima-aldaketari buruz pentsatzean beldurra, ezinegona, kezka eta interesa sentitzen dutenek arazo larriagotzat dutela hura (arazoaren larritasunaren gaineko batez besteko puntuazioa gainditzen dute). Kontrara, axolagabekeria gehien sentitzen duten pertsonek ez dute arazo hain larritzat klima-aldaketa (haiena da batezbestekoaren azpitik dagoen puntuazio bakarra).

06 Taula

Emozioen intentsitatea klima-aldaketan pentsatzean, arazoaren larritasun-pertzepzioaren arabera (%)

Emozioen intentsitatea		Arazoaren larritasuna			
		Altua	Ertaina eta Baxua	GUZTIRA	Batezbesteko puntuazioa (1-10)
Interesa	Asko + Nahiko	91,7	56,1	86,6	8,20
	Gutxi + Ezer ez	8,0	43,9	13,3	6,31
Kezka	Asko + Nahiko	89,3	54,4	83,8	8,22
	Gutxi + Ezer ez	10,7	45,6	16,3	6,55
Ezintasuna	Asko + Nahiko	78,4	43,9	73,3	8,28
	Gutxi + Ezer ez	21,0	56,1	26,3	7,02
Beldurra	Asko + Nahiko	56,5	22,8	51,8	8,45
	Gutxi + Ezer ez	43,5	77,2	48,3	7,43
Haserrea	Asko + Nahiko	76,3	42,1	71,3	8,28
	Gutxi + Ezer ez	22,5	57,9	27,8	7,13
Axolagabekeria	Asko + Nahiko	5,9	15,8	7,3	6,79
	Gutxi + Ezer ez	93,2	82,5	91,8	8,06
		(84,5%) N=338	(14,3%) N=57	(100%) N=400	7,96

1.4. Klima-aldaketari emandako garrantzi sozial eta pertsonala


Oro har, Donostiako herritarrek uste dute klima-aldaketari ematen dioten garrantzi pertsonala bat datorrela arazoaren dimentsio errealarekin, eta ez da hainbestetan hala biztanleria osoaren kasuan (04. grafikoa). Hortaz:

- Hiru donostiarretatik ia bik (% 65,8) uste du dagokion garrantzia ematen diola pertsonalki klima-aldaketari. Proportzio horrek aise gainditzen du hiriak gai horri dagokion garrantzia ematen diola uste dutenen ehunekoa (% 38k adierazi du hori).

- Biztanleriaren ia erdiak (% 47,5) uste du klima-aldaketari duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaiola hirian eta soilik % 27k pentsatzen du duena baino garrantzi txikiagoa ematen diola pertsonalki.

04 Grafikoa

Orokorrean (gizarte-mailan), zer-nolako garrantzia ematen zaio Donostian klima-aldaketari: behar baino gutxiago, behar adina edo behar baino gehiago? Eta zuk, zer-nolako garrantzia ematen diozu? (%)



Klima-aldaketari emandako garrantzi pertsonalaren eta sozialaren arteko harremanari eta arazoaren larritasunaren gaineko pertzepzioari (07. taula) dagokionez:

· Klima-aldaketak larritasun handia duela uste dutenen artean gehiago dira herritarrek duena baino garrantzi txikiagoa ematen diotela pentsatzen dutenak, larritasun ertain edo baxua duela uste dutenekin alderatuta (% 51,8 eta % 24,6).

· Aldiz, klima-aldaketak larritasun handia duela uste dutenekin alderatuta, gai horrek larritasun ertain edo baxua duela uste dutenen artean gehiago dira herritarrek behar duen garrantzia (% 47,4 eta % 36,4) eta are handiagoa ematen diotela uste dutenak (% 17,5 eta % 3).

· Beste ikuspegi batetik begiratuta, esan dezakegu klima-aldaketari duena baino garrantzi pertsonal handiagoa ematen diotela uste duten pertsonek eta hirian duena baino garrantzi gutxiago ematen zaiola uste dutenek arazo larriagotzat dutela klima-aldaketa (arazoaren larritasunari dagokion batez besteko puntuazioa gainditzen dute).

07 Taula

Klima-aldaketari emandako garrantzi soziala eta pertsonala, arazoaren larritasun-pertzepzioaren arabera (%)

		Baxua-Ertaina	Altua	GUZTIRA	Batezbesteko puntuazioa (1-10)
Orokorrean	Behar baino gutxiago	24,6	51,8	47,5	8,29
	Behar adina	47,4	36,4	38,0	7,89
	Behar baino gehiago	17,5	3,0	5,0	5,75
Zuk	Behar baino gutxiago	26,3	27,2	27,5	7,97
	Behar adina	64,9	66,6	65,8	7,94
	Behar baino gehiago	5,3	4,4	4,5	8,28
		(14,3%) N=57	(84,4%) N=338	(100%) N=400	7,96

Azkenik, klima-aldaketari ikuspegi pertsonaletik eta sozialetik ematen zaion garrantziari buruzko emaitzak eta aldagai sozialak gurutzatuta joera interesgarri batzuk hauteman daitezke (08. taula).

08 Taula
Klima-aldaketari emandako garrantzi soziala eta pertsonala, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, klase sozialaren, ezkerra-eskuina ardatzaren eta abertzale-espainol ardatzaren arabera (%)

Garrantzi soziala eta pertsonala	Sexua		Adina				Amaitutako ikasketen maila			Klase soziala			Ezkerra-eskuina ardatza			Abertzale-espainol ardatza			GUZTIRA
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	18-29 urteak	30-45 urteak	46-64 urteak	≥ 65 urteak	LH	DBH + Lanb. Hezik.	Goi mailakoak	Baxua	Ertaina	Altua	Ezkerzalea	Erdizalea	Eskubizalea	Ez abertzalea	Erdiko maila	Oso abertzalea	
GARRANTZI SOZIALA (HIRIAN EMATEN ZAION GARRANTZIA)																			
Behar baino gutxiago	46,7	48,3	57,1	57,6	41,9	42,3	39,7	44,4	51,2	46,6	46,0	53,5	54,4	45,0	44,4	38,3	47,1	54,9	47,5
Behar adina	38,1	37,9	34,7	33,7	40,4	39,8	44,1	35,7	37,9	34,0	41,4	33,8	34,4	40,0	38,9	40,0	38,7	34,1	38,0
Behar baino gehiago	6,6	3,4	4,1	6,5	6,6	2,4	1,5	8,7	3,9	7,8	3,7	4,2	3,1	5,6	11,1	10,0	3,4	4,3	5,0
ED/EE	8,6	10,3	4,1	2,2	11,0	15,4	14,7	11,1	6,9	11,7	8,8	8,5	8,1	9,4	5,6	11,7	10,9	6,7	9,5
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
GARRANTZI PERTSONALA																			
Behar baino gutxiago	28,4	26,6	42,9	42,4	19,9	18,7	23,5	22,2	32,0	32,0	20,5	42,3	31,9	25,6	16,7	18,3	31,1	28,7	27,5
Behar adina	66,0	65,5	46,9	55,4	70,6	75,6	66,2	73,8	60,6	61,2	71,6	56,3	62,5	68,1	72,2	75,0	61,3	65,2	65,8
Behar baino gehiago	2,5	6,4	8,2	1,1	6,6	3,3	7,4	3,2	4,4	5,8	4,7	1,4	3,8	4,4	11,1	5,0	5,9	3,7	4,5
ED/EE	3,0	1,5	2,0	1,1	2,9	2,4	2,9	0,8	3,0	1,0	3,3	0,0	1,9	1,9	0,0	1,7	1,7	2,4	2,3
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

Adibidez, adin-tarterik gazteenak (18 eta 45 urte artean) uste du herritarrek duena baino garrantzi txikiagoa ematen diotela klima-aldaketari (% 57,35 batez beste); 45 urtetik gorakoen kasuan, berriz, % 42,1ek uste du hori batez beste. Hala ere, pertsonalki ematen zaion garrantziaren kasuan, adin-tarterik gazteenean (18 eta 45 urte artean) % 42,65ek uste du duena baino garrantzi txikiagoa ematen diotela eta 45 urtetik gorakoen kasuan, % 19,3k uste du hori bera.

Bestalde, pertzepzio hori bera ardatz ideologikotik aztertuz gero, ezkerreko pertsonen % 31,9k uste du duena baino garrantzi txikiagoa ematen diotela klima-aldaketari eta eskuinekoen % 16,7k baino ez du uste duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaionik arazo horri.

1.5. Klima-aldaketari emandako garrantziaren ikuspegi integrala: biztanleriaren tipologia

Klima-aldaketari pertsonalki ematen zaion garrantzia eta hirian ematen zaiona gurutzatuz, hiru talde nagusitan zatitutako biztanleriaren tipologia aterako zaigu eta talde horietako bakoitza beste hirutan zatituko da aldi berean (05. grafikoa). Hortaz, bederatzi azpitaldeko sailkapena lortuko dugu guztira. Jarraian definituko ditugu eta esleituko diegu ehunekoaren pisua talde horiei:

1. TALDEA.- Gizartearekin bat datorren biztanleria: klima-aldaketari pertsonalki ematen zaion garrantzia bat dator hirian ematen zaion garrantziarekin; duena baino gutxiago, duen berbera zein duena baino gehiago izan. Donostiako biztanleriaren % 57,6 sartzen da talde horren barruan eta hiru azpitalde bereizi daitezke horien artean:

- 1. azpitaldea.- Gizarteak egiten duenarekin dimentsionatuta dagoen biztanleria: klima-aldaketari duen garrantzia ematen zaiola uste du, bai pertsonalki, bai sozialki. Arazo horren garrantziarekin bat datorren biztanleria-segmentua dela esan genezake. Biztanleriaren heren bat baino gehiago da (% 34,3).

- 2. azpitaldea.- Gizartearekin bat egiten duen biztanleria, gutxiagotasunagatik: klima-aldaketari duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaiola uste du, bai pertsonalki, bai sozialki. % 22,5 da.

- 3. azpitaldea.- Gizartearekin bat egiten duen biztanleria, gehiagotasunagatik: klima-aldaketari duena baino garrantzi handiagoa ematen zaiola uste du, bai pertsonalki, bai sozialki. Proportzio oso baxua da (% 0,8).

2. TALDEA.- Gizartearen kontrara doan taldea, gehiagotasunagatik: klima-aldaketari pertsonalki ematen zaion garrantzia hirian ematen zaionaren gainetik dago (pertsona horiek EZ dute uste duena baino garrantzi txikiagoa ematen diotenik pertsonalki). Biztanleriaren % 26,3k osatzen du talde hori eta hiru azpimultzotan zatitu dezakegu aldi berean: bat nagusia eta beste bi garrantzi oso txikia dutenak. Hauek dira talde horiek:


- 4. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi dimentsionatua eta sozialki gutxiegi dimentsionatua duen biztanleria. Haien jarrera koherentea da maila pertsonalean, dagokion garrantzia ematen diotela uste dutelako, baina kritikoak dira hiriarekin, behar lukeena baino garrantzi txikiagoa ematen diotelako. Bigarren talde horretako azpitalde nagusia da eta biztanleriaren % 23k osatzen du.

- 5. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi dimentsionatuegia eta sozialki gutxiegi dimentsionatua duen biztanleria. Jarrera kritikoa dute maila pertsonalean duena baino garrantzi handiagoa emateagatik, baina kritikoak dira hiriarekin ere kontrakoagatik, beharrezkoa baino garrantzi gutxiago emateagatik. % 1,8 soilik dira.

- 6. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi dimentsionatuegia eta sozialki dimentsionatua duen biztanleria. Hauek ere kritikoak dira maila pertsonalean, beharrezkoa baino garrantzi handiagoa emateagatik, baina egokia iruditzen zaie hiriak ematen dion garrantzia. % 1,5 soilik dira.

05 Grafikoa

Tipologia, klima-aldaketari ematen zaion garrantzi sozial eta pertsonalaren arabera (%)



3. TALDEA.- Gizartearen kontrara doan taldea, gutxiagotasunagatik: klima-aldaketari pertsonalki ematen dion garrantzia hirian ematen zaionaren azpitik dago (pertsona horiek ez dute uste duena baino garrantzi handiagoa ematen diotenik pertsonalki). Talde horren barruan biztanleriaren % 6,6 baino ez da sartzen eta hiru talde oso txikitan segmenta ditzakegu:

· 7. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi dimentsionatua eta sozialki gehiegi dimentsionatua duen biztanleria. Haien jarrera egokia da maila pertsonalean, dagokion garrantzia ematen diotela uste dutelako, baina kritikoak dira gizartearekin, behar lukeena baino garrantzi handiagoa ematen diotelako. % 3,3 dira.

· 8. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi gutxiegi dimentsionatua eta sozialki gehiegi dimentsionatua ematen dion biztanleria. Jarrera kritikoa dute maila pertsonalean duena baino garrantzi txikiagoa emateagatik, baina kritikoak dira hiriarekin ere kontrakoagatik, beharrezkoa baino garrantzi handiagoa emateagatik. % 1 dira soilik.

· 9. azpitaldea.- Pertsonalki garrantzi gutxiegi dimentsionatua eta sozialki dimentsionatua duen biztanleria. Kritikoak dira maila pertsonalean beharrezkoa baino garrantzi txikiagoa emateagatik, baina egokia iruditzen zaie hiriak ematen dion garrantzia, behar duena delako. % 2,3 dira.

Hiru azpitalderik nagusienek biztanleriaren % 79,8 hartuko lukete eta hauek dira: gizartearekin dimentsionatuta dagoena (% 34,3), gizartearekin bat datorren biztanleria, gutxiagotasunagatik (% 22,5) eta gizartearen kontrara doan biztanleria, gehiegitasunagatik, garrantzi dimentsionatuarekin pertsonalki eta hiri mailan gutxiegi dimentsionatuarekin (% 23).

2

INFORMAZIOA ETA SOZIALIZAZIOA

2.1. Klima-aldaketari buruzko informazioaren eskuragarritasuna

Donostiako herritarrek duten informazio-mailari dagokionez (06. taula eta 09. taula), bi heren baino apur bat gehiagok dio informazio asko edo nahikoa duela klima-aldaketari buruz oro har (% 68,6), haren kausei buruz (% 69,8) eta haren ondorioei buruz (% 68,3).

% 54k adierazi du klima-aldaketaren aurkako neurriei buruzko informazio asko edo nahikoa duela (berotegi-efektuko gasen isurpena murriztuz). Eta % 42,6k esan du informazio asko edo nahikoa duela klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriei buruz.

Desinformazioaren mailarik handiena klima-aldaketaren aurkako neurriekin dago lotuta (% 45ek informazio gutxi du edo ez du batere informaziorik horri buruz) eta, batez ere, haren ondorioetara egokitzeko neurriekin (% 56,3k informazio gutxi du edo ez du batere informaziorik).


09 Taula

Ondorengo gaiei buruz zenbat informazio duzu? Asko, nahikoa, gutxi edo batere ez? (%)

	Klima-aldaketaz, orokorrean	Klima-aldaketaren arrazoiez	Klima-aldaketaren ondorioei buruz	Klima-aldaketari aurre egiteko neurriez	Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriei buruz
Asko	16,3	16,0	14,0	10,5	7,8
Nahikoa	52,3	53,8	54,3	43,5	34,8
Gutxi	29,5	28,0	29,5	43,0	49,8
Batere ez	1,0	1,0	1,0	2,0	6,5
ED/EE	1,0	1,3	1,3	1,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

06 Grafikoa

Ondorengo gaiei buruz zenbat informazio duzu? Asko, nahikoa, gutxi edo batere ez? (%)



Bestalde, azken zazpi urtetan asko murriztu da biztanleriak klima-aldaketari, haren kausei, ondorioei eta hari aurre egiteko neurriei buruz duen desinformazioaren maila (10. taula). Hortaz:

· 2018an, biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok esan du klima-aldaketari (% 53,32), klima-aldaketaren kausei (% 54,76) eta haren ondorioei (% 54,6) buruzko informazio gutxi duela edo ez duela batere informaziorik. Hala ere, 2025ean % 30,5era, % 29ra eta % 30,5era murriztu dira proportzio horiek, hurrenez hurren.

· Bestalde, 2018an, lau donostiarretik ia hiruk esan zuen informazio gutxi zuela edo ez zuela batere informaziorik klima-aldaketaren aurkako neurriei buruz. 2025ean, % 45ekoa da proportzio hori.

10 Taula

Donostiarrek klima-aldaketari, oro har, eta haren kausei eta ondorioei buruz duten informazio-mailaren bilakaera (%)

	ima-aldaketaz, orokorrean		Klima-aldaketaren arrazoiez		Klima-aldaketaren ondorioei buruz		Klima-aldaketari aurre egiteko neurriez	
	2025	2018	2025	2018	2025	2018	2025	2018
Asko + Nahikoa	68,6	45,63	69,8	44,18	68,3	44,04	54,0	24,67
Gutxi + Batere ez	30,5	53,32	29,0	54,76	30,5	54,60	45,0	74,27

Klima-aldaketari, haren kausei, ondorioei eta hari aurre egiteko eta egokitzeko neurriei buruzko informazio-mailari dagokionez, hau nabarmendu behar dugu gai horrek sortzen dituen sentimenduen intentsitatearen arabera (11. taula):

Nahiko ados	29,9	31,0	30,6	32,6	28,7	30,9	39,7	25,4	30,5	29,1	32,1	26,8	33,1	28,8	27,8	41,7	23,5	31,1	30,5
Gutxi ados	6,1	2,5	2,0	4,3	5,1	4,1	1,5	2,4	5,9	1,9	5,1	4,2	3,8	3,8	0,0	6,7	1,7	3,7	4,3
Batere ados	2,0	,5	2,0	0,0	0,7	2,4	1,5	0,8	1,5	1,0	1,4	1,4	0,6	1,3	0,0	1,7	0,8	0,6	1,3
ED/EE	3,6	4,4	6,1	2,2	3,7	4,9	7,4	2,4	3,9	3,9	4,2	2,8	1,3	2,5	5,6	3,3	1,7	2,4	4,0
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
Etxebizitzen energia-efizientziari buruzko gaien inguruan informazioa ematea																			
Oso ados	61,9	62,1	61,2	62,0	63,2	61,0	55,9	68,3	60,6	62,1	61,4	67,6	61,3	69,4	66,7	51,7	71,4	67,1	62,0
Nahiko ados	29,9	27,1	24,5	35,9	26,5	26,8	32,4	23,8	29,6	27,2	29,8	25,4	31,9	23,1	27,8	35,0	21,8	27,4	28,5
Gutxi ados	3,0	3,9	6,1	0,0	4,4	4,1	2,9	4,8	3,0	6,8	2,3	1,4	3,1	3,8	0,0	6,7	3,4	1,2	3,5
Batere ados	1,5	,0	0,0	0,0	0,7	1,6	1,5	0,0	1,0	0,0	,9	1,4	0,6	0,6	0,0	1,7	0,0	1,2	,8
ED/EE	3,6	6,9	8,2	2,2	5,1	6,5	7,4	3,2	5,9	3,9	5,6	4,2	3,1	3,1	5,6	5,0	3,4	3,0	5,3
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

47 Taula

Udalak klima-aldaketari aurre egiteko mugikortasunaren arloan hainbat jarduera egitearen adostasun-maila, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, gizarte-mailaren, ezkerra-eskuina ardatzaren eta abertzale-espainol ardatzaren arabera (%)

	Sexua		Adina				Amaitutako ikasketen maila			Klase soziala			Ezkerra-eskuina ardatza			Abertzale-espainol ardatza			GUZTIRA
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	18-29 urteak	30-45 urteak	46-64 urteak	≥ 65 urteak	LH	DBH + Lanb. Hezik.	Goi mailakoak	Baxua	Ertaina	Altua	Ezkerzalea	Erdizalea	Eskubizalea	Ez abertzalea	Erdiko maila	Oso abertzalea	
GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEA																			
Oso ados	67,5	73,4	63,3	76,1	72,1	67,5	66,2	70,6	71,9	76,7	68,4	70,4	78,1	68,1	66,7	66,7	68,1	76,2	70,5
Nahiko ados	21,3	20,2	26,5	19,6	19,1	21,1	22,1	23,0	18,7	14,6	23,3	21,1	17,5	21,3	22,2	23,3	22,7	17,7	20,8
Gutxi ados	5,6	4,4	6,1	3,3	3,7	7,3	7,4	4,0	4,9	4,9	5,1	2,8	3,1	5,6	0,0	6,7	5,9	2,4	5,0
Batere ados	3,0	,0	2,0	1,1	1,5	1,6	0,0	0,8	2,5	1,0	1,4	2,8	0,0	2,5	5,6	1,7	0,8	2,4	1,5
ED/EE	2,5	2,0	2,0	0,0	3,7	2,4	4,4	1,6	2,0	2,9	1,9	2,8	1,3	2,5	5,6	1,7	2,5	1,2	2,3
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
HIRIGUNEETARA KUTSATZEN EZ DUTEN IBILGAILUAK BAKARRIK SARTZEA AHALBIDETZEA																			
Oso ados	35,5	43,8	46,9	41,3	31,6	44,7	38,2	42,9	38,9	40,8	38,6	46,5	45,0	38,1	38,9	31,7	35,3	47,0	39,8
Nahiko ados	26,9	28,1	26,5	27,2	27,2	28,5	29,4	25,4	27,6	21,4	30,2	29,6	27,5	29,4	33,3	28,3	30,3	26,8	27,5
Gutxi ados	16,8	16,7	10,2	13,0	20,6	17,9	17,6	15,9	16,7	18,4	16,7	11,3	15,0	18,1	5,6	26,7	19,3	11,0	16,8
Batere ados	17,8	8,4	14,3	16,3	16,9	5,7	10,3	15,1	12,8	15,5	12,1	9,9	10,0	12,5	16,7	11,7	13,4	12,8	13,0
ED/EE	3,0	3,0	2,0	2,2	3,7	3,3	4,4	,8	3,9	3,9	2,3	2,8	2,5	1,9	5,6	1,7	1,7	2,4	3,0
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

48 Taula

Udalak klima-aldaketari aurre egiteko hirigintzaren arloan hainbat jarduera egitearen adostasun-maila, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, gizarte-mailaren, ezkerra-eskuina ardatzaren eta abertzale-espainol ardatzaren arabera (%)

	Sexua		Adina				Amaitutako ikasketen maila			Klase soziala			Ezkerra-eskuina ardatza			Abertzale-espainol ardatza			GUZTIRA
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	18-29 urteak	30-45 urteak	46-64 urteak	≥ 65 urteak	LH	DBH + Lanb. Hezik.	Superiores	Baja	Ertaina	Altua	Ezkerzalea	Erdizalea	Eskubizalea	Ez abertzalea	Erdiko maila	Oso abertzalea	
BIDEGORRIAK SORTZEA HIRIAN BERTAN ETA BESTE UDALERRIEKIN																			
Oso ados	70,1	71,4	73,5	78,3	68,4	66,7	63,2	68,3	74,9	74,8	69,8	73,2	78,8	69,4	50,0	60,0	71,4	76,8	70,8
Nahiko ados	21,3	19,2	24,5	17,4	21,3	19,5	25,0	24,6	15,8	18,4	22,8	14,1	15,6	21,3	33,3	26,7	20,2	16,5	20,3
Gutxi ados	3,6	5,4	2,0	2,2	5,9	5,7	2,9	4,0	5,4	1,0	3,7	8,5	3,1	5,0	11,1	8,3	4,2	3,0	4,5
Batere ados	2,0	2,0	0,0	2,2	2,2	2,4	4,4	1,6	1,5	3,9	,9	1,4	0,6	1,9	0,0	1,7	2,5	1,8	2,0
ED/EE	3,0	2,0	0,0	0,0	2,2	5,7	4,4	1,6	2,5	1,9	2,8	2,8	1,9	2,5	5,6	3,3	1,7	1,8	2,5
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
HIRIGUNEETAN OINEZKOENTZAKO GUNEAK SORTZEA																			
Oso ados	69,0	69,0	71,4	70,7	62,5	74,0	73,5	66,7	69,0	70,9	69,3	66,2	70,6	71,3	55,6	53,3	73,1	75,0	69,0
Nahiko ados	22,3	22,2	26,5	21,7	25,0	17,9	20,6	23,0	22,2	19,4	23,7	22,5	23,8	20,0	33,3	31,7	17,6	18,9	22,3
Gutxi ados	3,6	5,4	0,0	4,3	5,9	4,9	1,5	5,6	4,9	3,9	3,7	7,0	1,9	5,6	5,6	11,7	4,2	2,4	4,5
Batere ados	2,5	2,5	2,0	3,3	3,7	,8	1,5	4,0	2,0	4,9	1,4	1,4	2,5	1,3	0,0	1,7	4,2	1,8	2,5
ED/EE	2,5	1,0	0,0	0,0	2,9	2,4	2,9	,8	2,0	1,0	1,9	2,8	1,3	1,9	5,6	1,7	,8	1,8	1,8
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
BERDEGUNEAK ETA PARKEAK BERRESKURATZEA ETA SORTZEA																			
Oso ados	78,2	81,3	77,6	80,4	77,9	82,1	79,4	81,0	79,3	83,5	80,0	76,1	81,9	82,5	66,7	68,3	89,1	81,1	79,8
Nahiko ados	16,8	16,3	20,4	19,6	16,2	13,0	16,2	15,9	16,7	14,6	16,7	15,5	16,3	15,0	22,2	23,3	10,1	15,9	16,5
Gutxi ados	2,0	1,5	2,0	0,0	2,2	2,4	2,9	0,8	2,0	1,0	1,9	2,8	1,3	1,3	0,0	5,0	0,0	1,2	1,8
Batere ados	0,5	,5	0,0	0,0	1,5	,0	0,0	0,8	0,5	0,0	,5	1,4	0,0	0,0	0,0	1,7	0,8	0,0	,5
ED/EE	2,5	,5	0,0	0,0	2,2	2,4	1,5	1,6	1,5	1,0	,9	4,2	,6	1,3	11,1	1,7	0,0	1,8	1,5
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
FAMILIA BAKARREKO ETA BIKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEARI MUGA JARTZEA																			
Oso ados	32,5	39,9	40,8	32,6	39,0	34,1	33,8	34,1	38,4	37,9	36,7	35,2	38,8	35,6	44,4	36,7	32,8	39,0	36,3
Nahiko ados	26,4	25,1	34,7	23,9	24,3	25,2	26,5	19,8	29,1	25,2	27,4	23,9	28,1	30,0	11,1	25,0	28,6	25,6	25,8
Gutxi ados	16,8	11,8	12,2	15,2	14,7	13,8	13,2	17,5	12,3	10,7	12,6	23,9	12,5	15,6	11,1	15,0	21,0	11,0	14,3
Batere ados	13,7	9,9	6,1	19,6	9,6	10,6	8,8	14,3	11,3	14,6	10,2	11,3	7,5	12,5	22,2	20,0	9,2	12,2	11,8
ED/EE	10,7	13,3	6,1	8,7	12,5	16,3	17,6	14,3	8,9	11,7	13,0	5,6	13,1	6,3	11,1	3,3	8,4	12,2	12,0
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

Tabla 49

Udalak klima-aldaketari aurre egiteko fiskalitatearen arloan hainbat jarduera egitearen adostasun-maila, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, gizarte-mailaren, ezkerra-eskuina ardatzaren eta abertzale-espainol ardatzaren arabera (%)

	Sexua		Adina				Amaitutako ikasketen maila			Klase soziala			Ezkerra-eskuina ardatza			Abertzale-espainol ardatza			TOTAL
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	18-29 urteak	30-45 urteak	46-64 urteak	≥ 65 urteak	LH	DBH + Lanb. Hezik	Goi mailakoak	Baxua	Ertaina	Altua	Ezkerzalea	Erdizalea	Eskubizalea	Ez abertzalea	Erdiko maila	Oso abertzalea	
INGURUMENA BABESTEN DUTEN JARRERAK DITUZTENEI ZERGAK JAISTEA (JARRERA JASANGARRIAK)																			
Oso ados	56,9	62,6	61,2	55,4	57,4	65,0	66,2	69,8	52,2	60,2	61,4	57,7	58,1	62,5	61,1	46,7	60,5	64,6	59,8
Nahiko ados	20,3	24,1	26,5	26,1	22,1	17,9	16,2	15,1	28,1	19,4	25,6	18,3	24,4	22,5	11,1	35,0	21,8	20,1	22,3
Gutxi ados	8,6	4,4	2,0	7,6	6,6	7,3	8,8	5,6	6,4	7,8	4,2	8,5	8,1	5,6	5,6	5,0	7,6	5,5	6,5
Batere ados	7,1	4,9	6,1	9,8	7,4	1,6	2,9	7,9	5,4	7,8	3,7	9,9	3,8	5,6	16,7	6,7	6,7	6,1	6,0
ED/EE	7,1	3,9	4,1	1,1	6,6	8,1	5,9	1,6	7,9	4,9	5,1	5,6	5,6	3,8	5,6	6,7	3,4	3,7	5,5
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

ONDORIOAK

Bat-bateko lotura

Donostiarrek klima-aldaketarekin egiten dituzten bat-bateko loturek zerikusia dute fenomeno horren ondorioekin, kausekin, arazoaren balorazioarekin eta jarduteko beharrekin.

Gaika sailkatzeko ariketa eginez gero, biztanleriaren % 80 baino gehiago 10 puntutan zentratzen da eta ia erdia hirutan. Hortaz:

- % 25,3k adierazi du klima-aldaketaz hitz egitean burura datorkion lehen gauza hau dela: errealitatea dela, arriskutsua dela, kezkagarria dela eta etorkizunerako ondorio larriak dituen arazoa dela.
- % 13k eguraldiaren aldaketarekin, muturreko tenperaturarekin, eguraldi eroarekin eta urtaroriK ez izatearekin lotzen du klima-aldaketa.
- % 10,3k kutsadurarekin lotzen du zuzenean klima-aldaketa (ibilgailuena, itsasoarena, airearena...).

Larritasuna

Donostiarrak oso kontziente dira klima-aldaketaren larritasunaz. Arazo horren gaineko pertzepzioa handiagoa da hirian Gipuzkoan eta EAEn erregistratutakoa baino. Hortaz:

- % 84,4k uste du klima-aldaketaren arazoa arazo oso larria dela egun. Proportzio horrek Gipuzkoan eta EAEn erregistratutakoa gainditzen du (% 78). Eta % 2k soilik uste du larritasun txikikoa dela.
- Klima-aldaketa arazo larria dela uste duten herritarren proportzioari dagokionez, zortzigarren lekuan egongo litzateke Donostia Europar Batasuneko (EB 27) herrialdeen artean; Maltaren (% 93), Greziaren (% 90), Portugalen (% 89), Hungariaren (% 87), Espainiaren (% 86), Frantziaren (% 85) eta Zipreren (% 85) atzetik.

Sentimenduak

Donostiarrak ez dira axolagabeak klima-aldaketarekiko (% 91,8k axolagabekeria gutxi edo batere ez sentitzen du horren aurrean). Interes handia dute gaiarekiko (% 86,6k interes handia edo nahikoa du). Kezka-maila (% 83,8 oso edo nahiko kezkatuta dago) ezintasunaren (% 73,3k ezintasun handia edo nahikoa sentitzen du), haserrearen (% 71,3k handia edo nahikoa sentitzen du) eta, jakina, beldurraren gainetik dago (% 51,8k beldur handia edo nahikoa sentitzen du klima-aldaketari buruz pentsatzeko garaian).

Kezka, beldurra eta interesa soilik hartuz gero kontuan, nabarmen handitu da intentsitate-maila 2018tik. Proportzionalki hazkunderik handiena izan duen sentimendua kezka izan da (15,3 puntu handitu da); gero, beldurra (12,4 puntu) eta, azkenik, interesa (8,3 puntu).

Klima-aldaketaren garrantzi pertsonal eta soziala

Oro har, Donostiako herritarrek uste dute klima-aldaketari ematen dioten garrantzi pertsonala bat datorrela arazoaren dimentsio errealarekin, eta ez dela hala biztanleria osoaren kasuan. Hortaz:

- Hiru donostiarretatik ia bik (% 65,8) uste du dagokion garrantzia ematen diola pertsonalki klima-aldaketari. Proportzio horrek aise gainditzen du hiriak gai horri dagokion garrantzia ematen diola uste dutenen ehunekoa (% 38).

- Biztanleriaren ia erdiak (% 47,5) uste du klima-aldaketari duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaiola hirian eta soilik % 27k pentsatzen du duena baino garrantzi txikiagoa ematen diola pertsonalki.

Klima-aldaketari pertsonalki ematen zaion garrantzia eta hirian ematen zaiona gurutzatuz, hainbat azpitaldetan zatitutako biztanleria-tipologia aterako zaigu. Hiru azpitalderik handienek biztanleriaren % 80 hartzen dute barne eta hauek dira:

- Pertsonalki zein sozialki klima-aldaketari dagokion garrantzia ematen diotenak. Donostiarren heren bat baino gehiago da (% 34,3).

- Pertsonalki zein sozialki klima-aldaketari dagokiona baino garrantzi txikiagoa ematen diotenak. Biztanleriaren % 22,5.

- Klima-aldaketari ematen dioten garrantzi pertsonala herritarrek ematen diotenaren gainetik dagoela uste dutenak. Biztanleriaren % 23.

Informazioa eta sozializazioa

Donostiarren bi heren baino apur bat gehiagok uste du informazio asko edo nahikoa duela klima-aldaketari buruz orokorrean (% 68,6), haren kausei buruz (% 69,8) eta ondorioei buruz (% 68,3).

% 54k adierazi du klima-aldaketaren aurkako neurriei buruzko informazio asko edo nahikoa duela (berotegi-efektuko gasen isurpena murriztuz). Eta % 42,6k esan du informazio asko edo nahikoa duela klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriei buruz.

Desinformazioaren mailarik handiena klima-aldaketaren aurkako neurriekin dago lotuta (% 45ek informazio gutxi du edo ez du batere informaziorik horri buruz) eta, batez ere, haren ondorioetara egokitzeko neurriekin (% 56,3k informazio gutxi du edo ez du batere informaziorik).

Azken zazpi urtetan asko murriztu da biztanleriak klima-aldaketari, haren kausei, ondorioei eta hari aurre egiteko neurriei buruz duen desinformazioaren maila. Hortaz:

- 2018an, biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok esan du klima-aldaketari (% 53,32), klima-aldaketaren kausei (% 54,76) eta haren ondorioei (% 54,6) buruzko informazio gutxi duela edo ez duela batere informaziorik. Hala ere, 2025ean % 30,5era, % 29ra eta % 30,5era murriztu dira proportzio horiek, hurrenez hurren.

- Bestalde, 2018an, lau donostiarretik ia hiruk esan zuen informazio gutxi zuela edo ez zuela batere informaziorik klima-aldaketaren aurkako neurriei buruz. 2025ean, % 45ekoa da proportzio hori.

Denbora-tarte horretan asko handitu da klima-aldaketaren presentzia eguneroko elkarrizketetan (familiarekin, lagunekin edo eguneroko zereginetan). Horrek agerian uzten du gai horrek zer nolako garrantzia hartu duen denbora gutxian donostiarren artean. Hortaz:

- % 46,3k esan du oso edo nahiko maiz hitz egiten duela klima-aldaketari buruz bere etxean eta familiarekin. 2018an, proportzioa horren erdia baino gutxiago zen (% 21,43).

- % 41,8k dio lagunekin eta kuadrillarekin oso edo nahiko maiz hitz egiten duela klima-aldaketari buruz. 2018an, % 18,5 ziren soilik.

Klima-aldaketaren eragileak

Donostiarren artean, gipuzkoarren eta EAEko herritarren artean bezala, oso barneratuta dago giza jarduera dela klima-aldaketaren arduradun nagusia. Hortaz:

- Hiriko biztanleriaren % 68,8k uste du gizakiaren jarduerak eragiten duela klima-aldaketa batik bat. 2024an Gipuzkoan erregistratutakoaren antzeko proportzioa (% 69) eta EAE osokoa (% 65) baino pixka bat handiagoa.

- % 27,5ek uste du prozesu naturalek eta giza jarduerak eragiten dutela. Proportzioa Gipuzkoakoa (% 25) baino zertxobait handiagoa da, eta EAEkoaren antzekoa (% 28).

- Eta % 2k soilik adierazi du prozesu naturalek eragiten dutela klima-aldaketa batik bat. Proportzio hori 2024an Gipuzkoan (% 3) eta EAEn (% 4) erregistratutakoa baino baxuagoa da.

Eragile sozialen erantzukizuna

Donostiarrek enpresei eta industriei ezartzen diete erantzukizunik handiena klima-aldaketaren aurkako borrokan, baita administrazioei ere oro har, eta % 78,3k bi eragileei ezartzen die erantzukizun handia edo nahikoa.

Bigarrenik, erantzukizunaren mailari dagokionez, udala eta herritarrak egongo lirateke (% 72,8k eta % 72,1ek erantzukizun-maila handia edo nahikoa ezartzen die, hurrenez hurren).

Eta, azkenik, alde handiarekin, elkarteak, GKEak eta abar egongo lirateke. % 43k soilik ematen die erantzukizun handia edo nahikoa klima-aldaketaren aurkako borrokan.

Azken zazpi urteetan, handitu egin da udalari emandako erantzukizun-maila (2018an, % 69,84k eman zion erantzukizun maila handia edo nahikoa), baina, batez ere, jaitsi egin da enpresei eta industriei zein herritarrei emandakoa (2018an, % 89,39k eman zien erantzukizun handia edo nahikoa enpresei eta industriei eta % 85,1ek herritarrei, oro har).

Eragile sozialen jarduketaren nahikotasuna

Donostiarren zati handi batek uste du zuzenean edo zeharka hirian jarduten duten eragile sozialak ez direla klima-aldaketa jorratzeko behar beste egiten ari, maila desberdinak egon arren. Hala:

- % 78,8k uste du enpresak eta industriak ez direla behar beste egiten ari klima-aldaketa jorratzeko eta % 71,5ek gauza bera pentsatzen du administrazio orokorrei buruz.
- Hiru donostiarretik bik uste dute udalak eta herritarrek ez dutela behar beste egiten klima-aldaketa jorratzeko. % 42,3k uste du elkarteak, GKEak eta abar ere ez direla behar beste egiten ari.

Klima-aldaketa jorratzeko egiten dituzten jarduketen nahikotasun-mailarik handiena elkarteentzat da (% 36k uste du nahikoa egiten dutela), geri herritarrentzat (% 25,8), Udalarentzat (% 22,3), administrazio publikoentzat orokorrean (% 17,8) eta, azkenik, enpresa eta industrientzat (% 12,3k soilik uste du behar beste egiten dutela).

Jarduketen nahikotasuna baloratzeko ziurgabetasunik edo ezagutza faltarik handiena elkarteen, GKE-en eta abarren kasuan dago (% 19,5ek ez daki bere jarduera zein den edo ez du baloratu).

Eragile sozialen rola neurtzea

Eragile sozialen rol integrala neurtzeko sisteman duten lekuari, klima-aldaketaren aurkako borrokan duten erantzukizunari eta fenomeno hori jorratzeko duten jarduketa-mailaren nahikotasunari erreparatu diogu eta hau nabarmenduko dugu:

· Enpresek eta industriek dute klima-aldaketa jorratzeko erantzukizun-mailarik handiena eta kritika-maila gorena, gabeziagatik, bai eta jarduketen nahikotasun-mailarik eta onespenik txikiena ere.

· Administrazio publikoak daude bigarren lekuan erantzukizun-mailari eta kritika-maila gorenari dagokionez, gabeziagatik. Jarduketen nahikotasun-mailaren eta adostasun-mailaren kasuan, berriz, laugarren lekuan daude.

· Elkarteek dute klima-aldaketa jorratzeko jarduketen nahikotasun-mailarik handiena eta erantzukizun-maila gorenik eta kritika-maila gorenik txikiena, gabeziagatik.

· Herritarrek dute adostasun-mailarik handiena eta bigarren lekuan daude jarduketaren nahikotasun-mailari dagokionez.

· Udala bigarren lekuan dago adostasun-mailaren kasuan eta hirugarren lekuan erantzukizun-mailari, jarduketaren nahikotasun-mailari eta kritika-maila gorenari dagokionez, gabeziagatik.

Ondorioak

Klima-aldaketaren ondorioz hainbat egoera arazotsu sortzeko probabilitatearen gaineko pertzepzioa handiagoa da Donostian, 2024an Gipuzkoan eta EAEn zegoena baino. Hala:

· Donostiarren % 89,6k uste du oso edo nahiko litekeena dela klima-aldaketaren ondorioz beroboladak maizago izatea. Proportzio horrek Gipuzkoakoa (% 83) eta EAEkoa (% 86) gainditzen du.

· % 87,6k uste du oso edo nahiko litekeena dela itsasoko maila igotzea. Gipuzkoakoa (% 84) eta EAEkoa (% 82) ere gainditzen du ehuneko horrek. Eta antzeko proportzio batek (% 87,5) uste du oso edo nahiko litekeena dela ondasun eta kontsumoen prezioa handitzea.

· % 82k uste du oso edo nahiko litekeena dela uholdeen maiztasuna handitzea. Proportzio horrek Gipuzkoakoa (% 76) eta EAEkoa (% 74) gainditzen du.

· % 79,3k uste du oso (% 40,8) edo nahiko litekeena (% 39,5) dela animalien eta landareen espezie batzuk galtzea. Proportzio horrek Gipuzkoakoa (% 75) eta EAEkoa (% 78) gainditzen du.

- % 77,6k uste du oso edo nahiko litekeena dela plagen eta gaixotasunen maiztasuna handitzea. Eta antzeko proportzio batek (% 77) uste du oso (% 34,5) edo nahiko (% 42,5) litekeena dela muturreko olatuak izatea.

- % 71,8k uste du oso edo nahiko litekeena dela klima aldaketak kaltetutako lekuetatik jendea etortzea.

- Eta, azkenik, donostiarren erdiak baino gehiagok uste du (% 55,1) oso edo nahiko litekeena dela klima-aldaketaren ondorioz elikagaien eta uraren eskasia izatea. Proportzio hori Gipuzkoan (% 39) eta EAEn (% 38) erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa da

Gainera, ondasunen eta kontsumoen prezioa handitzeko probabilitatearen gaineko pertzepzioa handiagoa da Donostian elikagaien eta uraren eskasia izateko probabilitatearen gainekoa baino. Horrek argi erakusten du klima-aldaketak dituen ondorio ekonomikoen gaineko pertzepzioa pertsonen bizitzarako ezinbestekoak diren ondasun naturalen murrizketen gainekoa baino askoz ere handiagoa dela egun.

Eraginak

Donostiarren % 95,8k uste du klima-aldaketak eragin handia edo nahikoa izango duela herrialde pobreetan eta eragin handia edo nahikoa etorkizuneko belaunaldietan. % 80,3k uste du eragin handia edo nahikoa izango duela donostiarrengan. % 78k uste du eragin handia edo nahikoa izango duela herrialde aberatsetan. % 72k uste du eragin handia edo nahikoa izango duela egungo belaunaldietan.

Donostiarren iruditeria sozialaren zati oso garrantzitsu batean dago finkatuta pertzepzio hau: klima-aldaketak eragin handiagoa izango du herrialde pobreetan eta etorkizuneko belaunaldietan herrialde aberatsetan eta egungo belaunaldietan baino, baita donostiarrengan baino ere. Hortaz, % 76k eta % 81,5ek uste du klima-aldaketak eragin handia izango duela etorkizuneko belaunaldietan eta herrialde pobreetan, hurrenez hurren. Aldiz, % 26k, % 28, eta % 22,3k soilik uste du eragin handia izango duela egungo belaunaldiengan, herrialde aberatsengan eta donostiarrengan. Horrez gain, hau nabarmendu behar dugu:

- % 24,1ek uste du klima-aldaketak eragin txikia edo hutsala izango duela egungo belaunaldietan, baina handia edo nahikoa etorkizunekoetan.

- % 13k uste du klima-aldaketak eragin txikia edo hutsala izango duela herrialde aberatsetan eta handia, berriz, pobreetan.

Azken zazpi urtetan, klima-aldaketak herrialde aberatsetan eragin handia edo nahikoa izango duen ustearen gaineko pertzepzioa handitu egin den arren (2018an % 71,62koa zen eta egun % 78koa da), klima-aldaketak etorkizunean eta herrialde pobreetan izango dituen ondorioen gaineko pertzepzio soziala handiagoa da Donostian, herrialde aberatsetan eta egungo belaunaldietan izango dituen ondorioen gainekoa baino.

Ekintza pertsonalak

Beste kontsiderazio batzuen artean, baina klima-aldaketa jorratzeko asmoarekin baita ere, donostiarren % 80k adierazi du hau egiten duela egun:

- Hondakinak bereizi eta birziklatzen ditu (% 94,3).
- Hurbileko eta sasoiko elikagaiak erosten ditu (% 87,5).
- Oinez, bizikletaz edo garraio publikoan mugitzen da eguneroko jarduerak egiteko (% 84).
- Arropa, oinetakoak, etxetresna elektrikoak, aparatu elektrikoak eta abar konpondu eta berrerabiltzen ditu (% 83,8).
- Auzoko edo hurbileko establezimenduetan egiten ditu erosketak urrutiko merkataritza-guneetan beharrean (% 81,8).

% 72k tokiko establezimenduetan erostea lehenesten du Internetetik erosi beharrean, paketeen bidalketak eragindako isurpenak murrizteko. Eta % 69,5ek gutxiago, baina kalitate eta iraupen hobekoak erosten dituela adierazi du (arropa, teknologia, etab.).

Efizientzia energetikoarekin lotutako ekintzak dira gutxien egiten dituztenak, dituen ezaugarri propioak direla eta ziurrenik. Hala:

- % 67,3k energia-kontsumoari ematen dio garrantzia etxetresna elektrikoak erosteko garaian (etxetresna elektriko efizienteak).
- Biztanleriaren ia erdiak (% 49,8) uste du etxebizitzaren isolamendua hobetu duela energia-kontsumoa murrizteko (leihoak aldatu eta abar).
- Eta laurden batek soilik (% 24,8) esan du energia berriztagarriei aurreko hornitzaileak baino garrantzi handiagoa ematen dion hornitzailea kontratatu duela.

Etorkizunean ekintzak egiteko prestutasunari dagokionez, egungo jarduketa-mailarekin alderatutako hazkunderik handienak ere energia-eraginkortasunaren arloan egongo lirateke. Hortaz:

- % 76,3 etxetresna elektrikoak erosteko prest egongo litzake etorkizunean, energia-kontsumo txikiagoari garrantzia emanez.
- % 61,3 etxebizitza isolatzeko prest egongo litzateke, energia-kontsumoa murrizteko.
- % 35,1 energia berriztagarriei garrantzi handiagoa ematen dion hornitzaile bat kontratatzeko prest egongo litzateke.

Jarduketa pertsonalaren nahikotasuna

Donostiarren % 55,3k uste du klima-aldaketa jorratzeko behar beste egiten duela, % 41,8k adierazi du ez duela behar beste egiten eta soilik % 2k uste du egin beharko lukeena baino gehiago egiten duela.

Norberaren jarduketa pertsonala nahikoa ez dela aitortzen dutenen artean bi pertsona talde bereizten ditugu, eragile sozialen jarduketa espezifikoaren balorazioari dagokionez:

- Klima-aldaketa jorratzeko haien jarduketa pertsonala zein eragile sozialena nahikoa ez dela uste duten pertsonak (% 35,5ek uste du hala dela enpresen eta industrien kasuan, % 34k administrazio publiko orokorren kasuan, % 31,3k Udalaren kasuan, % 31k herritarren kasuan eta % 21ek elkarteen kasuan).

- Haien jarduketa pertsonala nahikoa ez dela uste arren, eragile sozialen jarduketa espezifikoa nahikoa dela uste duten pertsonak (% 11,5ek uste du hala dela elkarteen kasuan, % 8,5ek herritarren kasuan, % 6,8k Udalaren kasuan, % 4,8k administrazio publiko orokorren kasuan eta % 3,8k enpresen eta industrien kasuan).).

Jarduketa pertsonal nahikoarentzako oztopoak

Donostiako herritarrek klima-aldaketaren arloan behar beste ez egiteko dituzten oztopo nagusiak hauek dira:

- Ekintza jakin batzuk egiteak dakarren deserosotasuna eta denbora: behar beste egiten ez duten pertsonen % 42,5ek dio erosotasunagatik eta denbora faltagatik ez duela egiten.

- Desorientazioa-desinformazioa: ia heren batek (% 32,9) dio ez dakiela zer egin behar duen (ez du ekintzarako informaziorik) edo ez daki, ez du erantzun.

- Kostu ekonomikoa: % 12k adierazi du ez dituela ekintzak egiten horien kostu ekonomikoarengatik.

- Proiekzioa: % 7,2k uste du klima-aldaketa jorratzeko jarduketak beste batzuek egin behar dituztela (enpresek eta gobernuek batik bat).

- Animo falta: % 3k uste du egingo duenak ez duela askorako balioko.

- Kezka falta: % 1,2k dio gai horrek ez duela kezkatzen.

- Eszeptizismoa: beste % 1,2k dio ez dagoela ezer egiterik.

Udalaren ekintzak

Oro har, donostiarrak ados daude udalak klima-aldaketa jorratzeko ekintzak egitearekin, baina, betiere, mugarik, murrizketarik edo debekurik ez badakarte. Ekintza mota horien kasuan, nabarmen murrizten da adostasunaren maila: Hortaz:

· Alde batetik, biztanleriaren ia % 80 oso ados dago udalak hiriko berdeguneak eta parkeak berreskuratzearekin eta sortzearekin; % 70,8 bidegorriak sortzearekin; % 62 energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ematearekin; % 59,8 jarrera jasangarriak dituzten pertsonei zergak murriztearekin eta % 51,1 udalak autokontsumo energetikorako instalazioak sustatzearekin.

· Bestalde, murrizketei edo mugei dagokienez, % 39,8 oso ados dago ibilgailu ez kutsakorrei soilik uztearekin sartzen erdigunera eta % 36,3 oso ados dago familia bateko eta bi familiako etxebizitzak mugatzearekin..

I Eranskina: Galdetegia

Inkestatzaile zkia: ☐ Inkesta zkia: ☐☐☐

0. AURKEZPENA

Kaixo, egun/arratsalde on, Siadeco enpresatik deitzen dizut, Donostiako Udalaren Cristina Enea Fundazioaren izenean. Klima-aldaketari buruzko ikerketa bat egiten ari gara. Horretarako, telefono bidezko elkarrizketa labur bat egiten ari gara. Hain zuzen ere, galdetegi hori betetzeko hautatua izan zara, ausaz. Erantzuteko eskatzen dizut, kontuan hartuta guztiz anonimoak izango direla erantzunak, eta informazioaren babesa bermatuko dela, indarrean dagoen araudiaren arabera. Hasi egingo gara, beraz. Nola erantzun nahi duzu? Euskaraz edo gaztelaniaz?

1. KARAKTERIZAZIO-DATUAK

G.1. Sexua:

- Emakumezkoa 1
- Gizonezkoa 2

G.2. Adina: ☐☐

G.3. Bizi den auzoa:

..... ☐☐

G.4. Zein da zure lan-egoera?

- Ordainpeko lana 1
- Langabezia 2
- Ikasten, nagusiki 3
- Etxeko lanak 4
- Erretiroduna, pentsionista, ezgaitua 5
- Beste egoera bat 6
- Ed/Ee 7

G.5. Zein ikasketa duzu amaituta?

- Batere ere edo oinarrizkoak baino gutxiago 1
- Oinarrizkoak: LH, DBH, Oinarrizko batxilergoa 2
- Bigarren hezkuntza: BUP, COU, Goi-mailako batxilergoa 3
- Lanbide Heziketa (FP) 4
- Unibertsitatea (Graduak, lizentziaturak, diplomaturak…) 5
- Ed/Ee 6

2. PERTZEPZIO ETA EMOZIO OROKORRAK

G.6. Esadazu, mesedez, zer den klima-aldaketari buruz hitz egiterakoan burura datorkizun lehenengo gauza:

.....

.....

.....

G.7. Orokorrean, gaur egun klima-aldaketaren arazoa zein neurritan da larria, zure ustez?
(mesedez, erabili ezazu 1etik 10erako eskala bat: 1ek esan nahi du ez dela batere arazo larria, eta 10ek oso arazo larria dela)

	Batere ez								Oso Larria	Ed/Ee
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
– Klima-aldaketaren arazoa	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11

G.8. Klima-aldaketa burura etortzen zaizunean, ondorengo emozioak zein neurritan sentitzen dituzu?

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee
A) Interesa	1	2	3	4	5
B) Kezka	1	2	3	4	5
C) Ezintasuna	1	2	3	4	5
D) Beldurra	1	2	3	4	5
E) Haserrea	1	2	3	4	5
F) Axolagabekeria	1	2	3	4	5

G.9. Orokorrean (gizarte-mailan), zer-nolako garrantzia ematen zaio Donostian klima-aldaketari: behar baino gutxiago, behar adina edo behar baino gehiago? Eta zuk, zer-nolako garrantzia ematen diozu?

	A. Orokorrean	B. Zuk
– Behar baino gutxiago	1	1
– Bbehar adina	2	2
– Behar baino gehiago	3	3
– Ed/Ee	4	4

3. INFORMAZIOA

G.10. Ondorengo gaiei buruz zenbat informazio duzu? asko, nahikoa, gutxi edo batere ez?

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee
A) Klima-aldaketaz, orokorrean	1	2	3	4	5
B) Klima-aldaketaren arrazoiez	1	2	3	4	5
C) Klima-aldaketaren ondorioei buruz	1	2	3	4	5
D) Klima-aldaketari aurre egiteko neurriez (edo berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko)	1	2	3	4	5
E) Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriei buruz	1	2	3	4	5

G.11. Eguneroko bizitzako ondorengo egoeratan hitz egiten al duzu klima-aldaketaz?

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee	Ez dagokio
A) Etxean, familiarekin	1	2	3	4	5	6
B) Lagunekin/kuadrillarekin	1	2	3	4	5	6
C) Prestakuntza-zentroan	1	2	3	4	5	6
D) Lanean	1	2	3	4	5	6

4. ARRAZOIAK ETA ERANTZUKIZUNA

G.12. Klima-aldaketaren arrazoiez ari bagara, zein esaldik islatzen du zure iritzia, bereziki? Klima-aldaketa sortzen dute...

– Prozesu naturalek, nagusiki 1

– Neurri batean, prozesu naturalek, eta beste batean, gizakion jarduerek 2

– Gizakion jarduerek, nagusiki 3

– Ed/Ee 4

G.13. Zure ustez, zein da ondorengo eragileen erantzukizun-maila, klima-aldaketaren kontrako ahaleginean, Donostian?

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee
a) Administrazio publikoa, orokorrean	1	2	3	4	5
b) Donostiako Udala	1	2	3	4	5
c) Enpresak eta industria	1	2	3	4	5
d) Herritarrak, oro har	1	2	3	4	5
e) Elkarteak, GKE-ak, etab.	1	2	3	4	5

G.14. Zure ustez, klima-aldaketari aurre egiteko, zein neurritan ari dira lanean ondorengo eragileak: nahikoa egiten ari dira, ez dira nahikoa egiten ari edo gehiegi egiten ari dira?

	Ez da nahikoa	Nahikoa da	Gehiegi da	Ed/Ee
a) administrazio publikoa, orokorrean	1	2	3	4
b) Donostiako Udala	1	2	3	4
c) Enpresak eta industria	1	2	3	4
d) Herritarrak, oro har	1	2	3	4
e) Elkarteak, GKE-ak, etab.	1	2	3	4

5. ERAGINAK ETA ONDORIOAK

G.15. Esadazu, mesedez, zure ustez jarraian aipatuko dizkizudan egoerak Donostian gertatzeko zer aukera dagoen: oso handia, nahikoa, gutxi edo batere ez

	Oso handia	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee
a) Muturreko olatuak	1	2	3	4	5
b) Itsasoko maila igotzea	1	2	3	4	5
c) Bero-bolada gehiago	1	2	3	4	5
d) Uholdeak maizago gertatzea	1	2	3	4	5
e) Animalia eta landare espezie batzuk galtzea	1	2	3	4	5

F) Izurriteak eta gaixotasunak areagotzea. ..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

G) Uholdeak maizago gertatzea ..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

H) Ondasunen eta kontsumoaren prezioen igoera ..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

I) Klima-aldaketak kaltetutako lekuetatik jendea iristea ..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

G.16. Zenbait kolektibo aipatuko dizkizut. Esadazu, zure ustez, horietako bakoitzari zein neurritan eragin diezaiokeen klima-aldaketak: Asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed/Ee
A) Gaur egungo belaunaldiei	1	2	3	4	5
B) Etorkizuneko belaunaldiei	1	2	3	4	5
C) Herrialde aberatsei	1	2	3	4	5
D) Herrialde pobreei	1	2	3	4	5
E) Donostiako herritarrei	1	2	3	4	5

6. NORBANAKOEN EKINTZAK

G.17. Beti klima-aldaketari aurre egiteko asmoarekin, gaur egun burutu duzu ondorengo ekintza hauetakoren bat? Eta etorkizunean, epe laburrean, prest egongo zinateke burutzeko?

	A. Gaur egun			B. Epe laburrean		
	Bai	Ez	Ed/Ee	Bai	Ez	Ed/Ee
A) Tresna elektrikoak erosterakoan energia gutxiago kontsumitzeari garrantzia ematea (etxetresna elektriko efizienteak)	1	2	3	1	2	3
B) Etxebizitzaren isolamendua hobetzea energia-kontsumoa murrizteko (Adb.: leihoak aldatzea, etab.)	1	2	3	1	2	3
C) Energia berriztagarriei aurreko hornitzaileak baino garrantzi handiagoa ematen dien energia-hornitzaile bat kontratatzea	1	2	3	1	2	3
D) Eguneroko jardueretara oinez, bizikletan edo garraio publikoan joatea	1	2	3	1	2	3
E) Erosketa auzoko edo gertuko establezimenduetan egitea urruti dauden merkataritza-guneetan beharrean	1	2	3	1	2	3
F) Erosketa herriko establezimenduetan egiteari lehentasuna ematea internet bidez egin beharrean, paketeak banatzeak eragindako emisioak murrizteko	1	2	3	1	2	3
G) Gertuko elikagaiak erostea, eta garaian garaikoak	1	2	3	1	2	3
H) Kopuru aldetik gutxiago erostea, baina kalitate handiagoko produktuak eta gehiago irauten dutenak (arropa, teknologia)	1	2	3	1	2	3
I) Produktuak konpontzea eta berrerabiltzea (arropa, etxetresna elektrikoak, tresna elektrikoak, etab.)	1	2	3	1	2	3
J) Hondakinak sailkatzea eta birziklatzea	1	2	3	1	2	3

G.18. Klima-aldaketari aurre egiterakoan, zer-nolako portaera duzu zuk, pertsonalki?

– Gehiegi egiten dut (nire ustez egin beharko nukeena baino gehiago).....1 (G.20-ra pasa)
– Nahikoa egiten dut (nire ustez egin beharko nukeena, ez gehiago, ez gutxiago) 2
– Ez dut nahikoa egiten (nire ustez egin beharko nukeena baino gutxiago) .....3 (G.20-ra pasa)
– Ed/Ee.....4

(Nahikoa egiten ez dutenentzat bakarrik: G.18 = 3)

G.19. Zure ustez, zergatik ez duzu nahikoa egiten klima-aldaketari aurre egiteko? Aipatu arrazoi nagusia?

– Erosotasuna edo denbora falta 1
– Kostu ekonomikoa 2
– Ez daki zer egin dezakeen.....3
– Enpresek eta gobernuek egin behar dutela uste duelako 4
– Uste duelako norberak egiten duenak ez duela asko balio 5
– Gai honek ez du kezkatzen 6
– (Ez irakurri) Ezin da ezer egin (Bat-bateko erantzuna) 7
– Ed/Ee.....8
– Ez dagokio (G.18=1, 2 edo 4).....9

7. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA

(denontzat)

P.20. Zenbateraino zaude ados, Donostiako Udalak klima-aldaketari aurre egiteko ondorengo ekintzak burutzearekin? (oso ados, nahikoa, gutxi edo batere ez)?

	Bastante de acuerdo	Poco de acuerdo	Nada de acuerdo	Ns/Nc
A) Energiaren autokontsumorako instalazioak sustatzea (eguzki-plakak instalatzea, etab.)	1	2	3	4 5
B) Etxebizitzen birgaitzea sustatzea, energetikoki efizienteagoak izan daitezen (isolamenduak, etab.)	1	2	3	4 5
C) Etxebizitzen energia-efizientziari buruzko gaien inguruan informazioa ematea	1	2	3	4 5
D) Garraio publikoa hobetzea	1	2	3	4 5
E) Hiriguneetara kutsatzen ez duten ibilgailuak bakarrik sartzea ahalbidetzea	1	2	3	4 5
F) Bidegorriak sortzea hirian bertan eta beste udalerriekin	1	2	3	4 5
G) Hiriguneetan oinezkoentzako guneak sortzea	1	2	3	4 5

H) Berdeguneak eta parkeak berreskuratzea eta sortzea..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

I) Familia bakarreko eta biko etxebizitzak eraikitzeari muga jartzea ..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

J) Ingurumena babesten duten jarrerak dituztenei zergak jaistea (jarrera jasangarriak)..... 1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 5

8. ALDAGAI SOZIALAK

(denontzat)

G.21. Zure egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta, zein estatus edo klase sozialetan kokatuko zenuke zure burua?

– Klase sozial altua..... 1
– Klase sozial ertain-altua 2
– Klase sozial ertaina 3
– Klase sozial ertain-baxua 4
– Klase sozial baxua 5
– Ed/Ee 6

G.22. Politikaz ari garenean, ezkerra eta eskuina esamoldeak erabili ohi dira. 1etik 10erako eskala batean, '1' ezker muturra eta '10' eskuin muturra, eta beraz, 5 zentroa izanik, non kokatuko zenuke zure burua?

	Ezker muturra								Eskuin muturra		Ed/Ee
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
– Posizionamendu politikoa	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11

G.23. Bestalde, sentimendu abertzaleari edo euskal nazionalistari dagokionean, non kokatuko zenuke zure burua 1etik 10erako eskala batean? ('1' batere abertzalea edo nazionalista ez, eta '10' oso abertzalea edo nazionalista?

	Ezker muturra								Eskuin muturra		Ed/Ee
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
– Sentimendu abertzalea	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11

BESTERIK EZ, ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

II Eranskina: Laginaren banaketa karakterizazio-aldagaien arabera

Aldagaiak	Neurtzeko modalitateak	n	%
Sexua	Gizonezkoa	197	49,3
	Emakumezkoa	203	50,8
Adina	18-29 urteak	49	12,3
	30-45 urteak	92	23,0
	46-64 urteak	136	34,0
	≥ 65 urteak	123	30,8
Auzoa	Altza	34	8,5
	Intxaurrondo	47	11,8
	Mirakruz - Bidebieta	15	3,8
	Erdialdea	50	12,5
	Amaraberri	53	13,3
	Aiete	18	4,5
	Antigua	54	13,5
	Añorga	8	2,0
	Ibaeta	2	0,5
	Miramon - Zorroaga	2	0,5
	Igeldo	2	0,5
	Ategorrieta - Ulia	10	2,5
	Egia	40	10,0
	Gros	39	9,8
	Loiola	21	5,3
	Martutene	5	1,3
Amaitutako ikasketen maila	Batere ez edo Lehen Hezkuntza baino gutxiago	6	1,5
	Lehen Hezkuntza	62	15,5
	Bigarren Hezkuntza + Bitxiler	41	10,3
	Lanbide Heziketa	85	21,3
	Unibertsitatea	202	50,5
	ED/EE	4	1,0
Okupazio nagusia	Ordaindutako lana	208	52,0
	Langabezian	30	7,5
	Ikasten, batez ere	17	4,3
	Etxeko lanak	5	1,3
	Erretiratua, pentsioduna, ezgaitua	124	31,0
	Beste egoera batzuk	13	3,3
	ED/EE	3	0,8
Klase soziala	Baxua	103	25,8
	Ertaina	215	53,8
	Altua	71	17,8
	ED/EE	11	2,8
Ezkerra-eskuina ardatza	Ezkerzalea (1-3)	160	40,0
	Erdizalea (4-6)	160	40,0
	Eskubizalea (7-10)	18	4,5
	ED/EE	62	15,5
Abertzale-espainol ardatza	Ez abertzalea (1-3)	60	15,0
	Erdiko maila (4-6)	119	29,8
	Oso abertzalea (7-10)	164	41,0
	ED/EE	57	14,3
GUZTIRA		400	100,0



cristinaenea

Patronoak

Babesle iraunkorra

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

añarbe
urak aguas